

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO MAIATZA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %3,7ko hazkunde-tasa izan du 2006ko maiatzean

Urteko lehenengo bost hilabeteetako hazkundea %4,9koa izan da, 2005eko aldi beraren aldean

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko maiatzaren aldean %3,7 hazi da 2006ko maiatzean. Urteko lehenengo bost hilabeteetako hazkundea %4,9koa izan da, 2005eko aldi beraren aldean.

2006ko maiatzean, eta 2006ko apirilaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %2,8 hazi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2006ko apiril-maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko maiatzeko indizearen bilakaerak (2005eko maiatzaren aldean) gehikuntzak

izan ditu sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak %5,6 gehitu dira, energia %5,1, tarteko ondasunak %3,1 eta kontsumo-ondasunak %1,4; izan ere, azken hauen gehikuntza kontsumo-ondasun iraunkorren (%0,7) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorren (%1,8) gehikuntzaren ondorioz eman da.

2006ko maiatzeko hil arteko aldaketak, 2006ko apirilaren aldean, positiboak izan dira industriako sektore guztietan. Energia %4,3 gehitu da hil artean, ekipamenduko ondasunak %3,7 gehitu dira aurreko hilabetearen aldean, tarteko ondasunak %1,2 eta kontsumo-ondasunak %3,1 martxoaren aldean. Azken honen gehikuntza kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (%3,3) eta kontsumo-ondasun iraunkorrek eragin dute (%2,8).

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira Bizkaian (%7,2) eta Gipuzkoan (%2,5), baina Araban %0,7 murriztu dira.

2006ko maiatzetik apirilera bitarteko tasak gehitu egin dira hiru lurraldeetan: Araban %3,8 gehitu dira hil artean, Bizkaian %3,2 eta Gipuzkoan %1,8.

Taula: 2006ko Maiatza. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Mai06/Mai05	At/At-1 (1)	Mai06/Api06	Api06/Mar06
Indize orokorra: Euskal AE	3,7	4,9	2,8	-1,5
Araba	-0,7	4,1	3,8	-1,2
Bizkaia	7,2	6,0	3,2	-1,8
Gipuzkoa	2,5	4,1	1,8	-1,3
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,4	0,6	3,1	-2,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,7	1,3	2,8	-1,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,8	0,3	3,3	-3,1
Ekipo-ondasunak	5,6	8,3	3,7	-2,3
Bitarteko ondasunak	3,1	1,5	1,2	-0,1
Energia	5,1	16,8	4,3	-8,9

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>